

AHOTS BAT... DUELA GUTXI...

(DONOSTIAKO ORFEOIAK EHUN URTE BETETZEAN)

Xaguxar

“ Eskerrik beroenak Carmen Cuevas-i bere laguntzarengatik ”

Azkeneko hamabi hilabeteek ekarri dute ere bere samina. Lagunak joan zaizkigu. Lan handia egingo zuten lagunak. Batetik eta bestetik bere ekintzak goraiatzeko bitartean, etxekoek, lagun-minek azkeneko apurrak biltzen dituzte: notak, papertxoak, idatzi erdi-ezabatuak, proiektuak, etxeko-entzako ezezagunak gertatzen diren telefono zenbakiak... Ez dago jadanik, guzti horretan ordena jarriko duenik eta den dena jasoko da altxorrik preziatuena balitz.

Azkeneko hamabi hilabeteek ekarri digute ere “Errenteriako Historia” liburu mardula. Adituek izan dute zer esanik... Beharrezkoa, sakona, ederra... Gainontzekoek, hau da, adituak ez garenok, gure guraso edota aiton-amonen kontakizunak, azkenean, liburu batetan, historiako kategoriara igota, ikusi ditugu. Ordurarte etxeko giroan, ixil kontutan esanda, azaldu da nolabait argira. Tratuera desberdinez, objektibotasunez esanda, zehaztasun eta datuz osaturik..., malkoak eta ixiluneak betirako gairak nahirik. Gerra garaiko erretratuak ikusirik, nabaritzen da garaileek ateratakoak direla eta propaganda dutela helbururik nagusia. Zenbat jende biltzen dugun! Zenbat preso egin dugun! Zein adoretu agertzen garen!

Pentsamendu hauetan nengoela, azkenean, hamabi hilabeteek ekarri digute, duela gutxi, ahots bat, ahots batzuk, musikari multzo galanta... Gernikan egindako kontzertuan. 1937garreneko Apirilaren 27an hegazkin alemaniarrek Gernika hiria bonbardatu zuten. Historiako unerik beltzenetakoa. Hiri soil bat helburu militarizat hartuta. Jende soilaren kontrako zigorra. Euskaldunen hiri mitikoa. 1997garreneko Apirilaren 27an Sorozabalen lan ederra Gernikan. Abeslariak, musikariak... Musikarien artean, hainbat errenteriar... Bakarlarrien artean, Donostiako Orfeoian ari den, Xabier Goñi errenteriarra.

Azkeneko Musikasten emandako hitzaldiaren ondoren Carmen Cuevas-ek esan digu zein errenteriar azaltzen diren Donostiako Orfeoien artxiboetan.

| IZENA | ABESLARI MOETA | SARRERA DATA | AMAIERA DATA |
|-------------------------------|----------------|--------------|---|
| Basurto Imaz, M. Carmen | Sopranoa (?) | 1957/1/1 | 1966/1/1 |
| Basurto Imaz, M. Teresa | Sopranoa (?) | 1957/1/1 | 1980/1/1 |
| Basurto Urbiet, Ramon | Tenorea | 1935/12/15 | 1980/1/1 |
| Bussela Beteta, M. Luisa | Sopranoa | 1954/1/1 | 1964/1/1 |
| Comendador Azcarraga, Ramon | Baxua | 1977/1/1 | 1987/1/1 (Gaur egun Lehendakari-ordea) |
| Goñi Galarraga, Ignacio | Tenorea | 1989/7/1 | |
| Gonzalez Echeverria, Iñaki | Tenorea | 1987/7/10 | 1990/2/1 |
| Irastorza Garcia, Arantxa | Sopranoa | 1989/1/10 | 1989/3/1 |
| Lopez Casanova Margarita | Sopranoa | 1938/1/1 | 1953/1/1 |
| Lopez Casanova, Mari | Sopranoa (?) | 1940/1/1 | 1953/1/1 |
| Lopez Casanova, Rosa | Sopranoa (?) | 1941/5/1 | 1946/2/1 |
| Lopez Soraluze, Ainhoa | Kontralto | 1988/11/22 | 1992/9/1 |
| Lopez Soraluze, Josu | Baxua | 1989/9/7 | |
| Mendizabal Echeverria, Josune | Soprano | 1957/1/1 | |
| Mendizabal Echeverria, Ramon | Tenorea | 1961/1/1 | |
| Mugica Zabala, Fernando | | 1956/1/1 | 1964/1/1 |
| Ortiz Makirriain, Rosa | Kontralto | 1990/4/11 | 1995/1/1 |
| Oyarbide Jauregui, Nekane | Kontralto | 1975/9/23 | |
| Palomo Garcia, Angel | Tenorea | 1969/5/1 | |
| Portugal Moneo, Jose Luis | Baritonoa | 1950/1/1 | |
| Salaberria Olaizola, Ricardo | Baritonoa | 1961/8/1 | 1991/2/1 |
| Vega Vega, Jose Antonio | Tenorea | 1988/1/12 | |



Donostiako Orfeoiaren Erreterian 1978. urtean

Fotografía: Eresbtl

Zenbaitzuk, aspaldikoak, faltako dira, agian, urte haietan ez bait ziren fitzak egiten. Honeraino zerrenda. Zerrendak zenbaitetan hotz xamarra gelditzen dira. Aipatu beharko litzateke ere Andra Mari eta Donostiako Orfeoiaren elkar-lanak, Antton Aiestaran zuzendaritzapean eta ondoren ... Bidaiak... Musikaste... Eta Orfeonista osoak izatekotan dauden Olatz Uria eta Eñaut Otazo... Eta nola ez, Orfeoiak Erreteriarako Txistulari bandarekin grabatutako diska Gure Meza = Misa Vasca/ Tomás Garbizu - Donostia:Columbia, D.I.1966.

Amaitu dezagun pasadizo txiki bat kontaturik. Erreteriarako haur batzuk Zerainen eguna pasatzera. Bertako andre batek galdetu die:

- Nungoak zarete?
- Erreteriarakoak.
- Orduan, ondo kantatuko duzue, ez da?

Haurren artean batzuk harrotuta Euskaraokera ekiten diote, besteek, lotsatiagoak edota herriaren izen ona, bere eskutan dagoela ikusirik kezkatu eta lotsatu egiten dira.

- Bai, bai... Lotsatu egin zarete baina ondo asko kantatuko duzue, bai... Hona etorri diren erreteriar guztiek ondo kanta-

tzen dute. Hori herri kantaria esaten dugu guk! -dio andreak alde eginik.

"Maite... Eguzki eder..."

Ahots bat... duela gutxi. ✎

"ORFEÓN DONOSTIARRA" El próximo domingo el Orfeón Donostiarra cantará la misa de Trueba en el santuario de Lezo. Después de la misa se reunirán en fraternal banquete los orfeones Renteriano y Donostiarra en el acreditado establecimiento de "Panier Fleuri" de Rentería.

La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. nº 5760, 12/6/1901, 2/2